Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2015eko maiatzaren 19a, asteartea — 92 — Martes, a 19 de mayo de 2015

TOKI ADMINISTRAZIOA — 3 — ADMINISTRACIÓN LOCAL

## LEGAZPIKO UDALA

*Iragarkia*

Legazpiko Udal Korporazioaren Osoko Bilkurak, joan den 2015-03-25ean egin zuen ohiko bileran, hasierako onespena eman zion «Udaletxearen atzealdeko lurpeko aparkalekuan eta udalerriko beste kale batzuetan egokitutako guneetan ibilgailuen estazionamendua mugatzeko eta antolatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Ordenantzari».

Jendeaurreko informazio-epea amaiturik eta alegazioak aurkeztu ez direla ikusi ondoren, aipatu Ordenantza behin betiko onespena jaso duela ulertzen da, beraz argitaratzen da.

Legazpi, 2015eko maiatzaren 13a.—Alkatea. (4655)

*Udaletxearen atzealdeko lurpeko aparkalekuan eta udalerriko beste kale batzuetan egokitutako guneetan ibilgailuen estazionamendua mugatzeko eta antolatzeko zerbitzu publikoa arautzen duen Ordenantza.*

### I. TITULUA

### EUSKAL HERRIA PLAZAREN ATZEALDEKO LURPEKO APARKALEKUAREN ARAUTZEA

*1. artikulua.*

Atal honetan, udaletxearen atzealdeko lurpeko aparkalekuan 3.500 kilora arteko ibilgailuen estazionamendua antolatzeko zerbitzu publikoa arautzen da.

*2. artikulua.*

Udaletxearen atzealdeko lurpeko aparkalekuan denbora mugatuan aparkatzeko ordutegia honako hau da:

— 07:00etatik 21:00etara.

Ordutegi hori Alkatetzaren dekretuaren bidez aldatu ahal izango da.

*3. artikulua.*

Aparkalekuan, gehienez ere, 480 minutu (8 ordu jarraian) aparkatu ahal izango da.

*4. artikulua.*

Ordenantza honen eraginpean dagoen eremuan aparkatu ahal izateko, honako baldintza hauek bete behar dira:

1. Tiketa ibilgailuaren barrualdean leku agerian erakutsiko da, kanpoaldetik ikusteko moduan. Tiketean erraz ikusiko dira bi datu hauek: tiketak duen denbora-muga eta ibilgailuaren matrikula. Tiketok hartarako jarriko diren parkimetroan jasoko dira.

2. Leku berean ibilgailu batek egoteko duen denbora –8 ordu– igaro ondoren, ibilgailua kendu egin behar da bertatik.

Bertan aparkatu ahal izateko, 2 ordu igaroko dira.

## AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

*Anuncio*

El Pleno del Ayuntamiento de Legazpi en sesión ordinaria celebrada el día 25-03-2015 aprobó con carácter inicial la «Ordenanza reguladora del servicio público de control de limitación y ordenación del estacionamiento de vehículos, en el parking subterráneo de la trasera del ayuntamiento y espacios habilitados en otras calles del municipio».

Transcurrido el plazo de información pública sin que se hayan presentado alegaciones, la citada Ordenanza se entiende aprobada definitivamente por lo que se procede a su publicación.

Legazpi, a 13 de mayo de 2015.—El alcalde. (4655)

*Ordenanza reguladora del servicio público de control de limitación y ordenación del estacionamiento de vehículos, en el parking subterráneo de la trasera del Ayuntamiento y espacios habilitados en otras calles del municipio.*

### TÍTULO I

### REGULACIÓN DEL PARKING SUBTERRÁNEO DE LA TRASERA DE EUSKALHERRIA PLAZA

*Artículo 1.*

En este apartado, se regula la prestación del Servicio Público de Ordenación del estacionamiento de vehículos de hasta 3.500 Kg en el parking subterráneo en la trasera del Ayuntamiento.

*Artículo 2.*

El horario que se establece para el funcionamiento del estacionamiento limitado en el Parking subterráneo en la trasera del Ayuntamiento es el siguiente:

— De las 07:00 horas a las 21:00 horas.

Este horario podrá ser modificado mediante Decreto de Alcaldía.

*Artículo 3.*

La limitación del tiempo de estacionamiento se establece en 480 minutos (8 horas continuadas).

*Artículo 4.*

Para estacionar dentro de la zona afectada por la presente ordenanza, deberán cumplirse los siguientes requisitos:

1. Exhibir en la parte interior del parabrisas del vehículo, de forma totalmente visible desde el exterior, ticket con la vigencia temporal correspondiente con la indicación correcta de la matrícula del vehículo, expedido por parquímetro que se instale al efecto.

2. Transcurrido el período máximo de permanencia, –8 horas–, se deberá proceder a retirar el vehículo.

Para volver a estacionar deberá haber transcurrido el plazo de 2 horas.

EK\CV GAO-I-2015-04655

*5. artikulua.*

Alkate-udalburuak, Zerbitzuetako Departamentuak arrazoiz proposatuta, aldi baterako geldiarazi ahal izango du Ordenantza hau aplikatzea, behar bezala arrazoituta, trafikoan eta aparkalekuetan edozein eratan eragiten duten kausak egonez gero.

*6. artikulua.*

Ordenantza bete egingo dela bermatzeko, kontrol zerbitzu bat ezarriko da eta behar diren giza baliabideak nahiz baliabide materialak izango ditu zerbitzu horrek.

*7. artikulua.*

1. Ordenantza honetan ezarri diren artikuluetatik edo horren garapenean Alkatetza-udalburuak eman ditzakeen gainerako xedapenetatik edozein hausten bada, trafiko eta zirkulazioari buruzko antolamendurako arauen aurkako arau-haustetzat joko dira eta, horrelakoetan, legez ezarrita dagoen prozedura betez zehapenak ezarriko dira.

2. Ondorengo hauek izango dira arau-hausteak:

a) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, 2 ordu baino gutxiagoan, gainditzea.

b) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, 2 ordu baino gehiago, gainditzea.

c) Balio ez duen tiketa erabiltzea –matrikula okerra–.

d) Tiketa ez jartzea.

*8. artikulua.*

7.2. artikuluan tipifikatu diren arau-hausteak 30,00 €-ko isunarekin zigortuko dira.

Aipatu artikuluaren a, b, c eta d ataletan tipifikatu diren arau-hausteak, eta estazionamenduaren neurriz gaineko erabilerarengatik –tiketarik gabe 24 ordutan aparkatuta egotea– egindako arau-hausteak, larriak dira eta, ondorioz, udal-agintaritzak era ez-egokian erabili den herri-espazio hori berreskuratzeari ekingo dio, bertan dagoen ibilgailua hortik kendu eta udal-biltegira eramanez. Horrezaz gain, dagokion diru-zigorra jarriko da.

Ibilgailua herri bidetik kentzeko zerbitzuak eta baita udal-biltegian egingo den egonaldiak, Ordenantza Fiskaletan ezarritako tasak sortaraziko ditu.

*9. artikulua.*

Ordenantza honetan ezarri ez diren gainerako gauza guztietarako trafikoa arautzen duen Udal Ordenantzan eta hori garatzeko emango diren gainerako araudietan ezarritakoa beteko da.

— Lurpeko aparkalekuan, trakzio mekanikoko ibilgailuak aparkatzeko orduko tasa, ondorengo ordu tarteen arabera zehazten da:

A) 7:00 – 17:00 ordu tartea, 0,10 €/orduko.

B) 17:00 – 21:00 ordu tartea, 0,20 €/orduko.

C) 21:00 – 07:00 ordu tartea, doan.

Tarifen eguneraketa Ordenantza Fiskaletan jasoko da.

*10. artikulua.*

Salaketa, jaso den egunean bertan baliogabetu ahal izango da, lurpeko aparkalekuko makinan bertan. Arau-hausteari arabera, hauek dira baliogabetzearen zenbatekoak:

a) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, 2 ordu baino gutxiagoan, gainditzea. (6,00 €).

b) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, 2 ordu baino gehiagoan, gainditzea. (10,00 €).

c) Balio ez duen tiketa erabiltzea –matrikula okerra–. (10,00 €).

*Artículo 5.*

La Alcaldía-Presidencia, a propuesta motivada del Área de Servicios, podrá dejar en suspenso la aplicación de la presente Ordenanza durante los períodos o días, que por causas debidamente motivadas incidan de cualquier forma, en el tráfico y estacionamientos.

*Artículo 6.*

Al objeto de garantizar el cumplimiento de la Ordenanza se establece un servicio de control dotado de los medios materiales y personales necesarios.

*Artículo 7.*

1. La infracción a cualquiera de los artículos de la presente Ordenanza, así como de las disposiciones que en su desarrollo se dicten por la Alcaldía-Presidencia, tendrán la consideración de infracciones a las normas de ordenación del tráfico y circulación y traerá consigo la imposición de sanciones mediante el procedimiento legal establecido.

2. Se consideran infracciones:

a) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en menos de 2 horas.

b) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en más de 2 horas.

c) Utilizar un ticket no válido – matricula no correcta-.

d) No disponer de ticket.

*Artículo 8.*

Las infracciones tipificadas en el art. 7.2 serán sancionadas con una multa de 30 €.

Las infracciones tipificadas en los apartados a, b, c y d del referido artículo y que supongan una extralimitación por uso abusivo del estacionamiento –24 horas de estacionamiento sin ticket– determinarán por sí mismas, que por la autoridad municipal se proceda a recuperar la libre disposición del espacio público indebidamente ocupado retirando dicho vehículo al depósito municipal, con independencia de la sanción económica que se imponga.

La prestación del servicio de retirada del vehículo de la vía pública así como su depósito devengarán las tasas que al efecto se establezcan en la Ordenanza fiscal.

*Artículo 9.*

En lo no previsto en la presente Ordenanza, se estará a lo dispuesto en la Ordenanza Municipal reguladora de tráfico y demás normativa que en desarrollo de lo anterior se dicte.

— La Tasa por hora de estacionamiento de vehículos de tracción mecánica en el parking subterráneo, se asigna en base a las siguientes franjas horarias:

A) Franja horaria – 7:00 h- 17:00 h. 0,10 € / hora.

B) Franja horaria – 17:00 h- 21:00 h. 0,20 € / hora.

C) Franja horaria – 21:00 h- 07:00 h. Gratuito.

La actualización de las tasas se realizará anualmente en las Ordenanzas Fiscales.

*Artículo 10.*

La anulación de la denuncia, se podrá llevar a cabo en la propia máquina, en el mismo día de la emisión de la denuncia. Las cuantías de la anulación en función de la infracción son:

a) Por rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en menos de 2 horas. (6,00 €).

b) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en más de 2 horas. (10,00 €).

c) Utilizar un ticket no válido –matricula no correcta– (10,00 €).

EK\CV GAO-I-2015-04655

d) Tiketa ez jartzea (10,00 €).

II. TITULUA

UDALERRIKO BESTE KALE BATZUETAN EGOKITUTAKO APARKALEKUEN ARAUTZEA

*11. artikulua.*

Atal honetan, denbora mugatu batez udalerriko kaleetan aparkatzeko aukera dagoen eremuetan ibilgailuen estazionamendua antolatzeko zerbitzu publikoa arautzen da.

*12. artikulua.*

Kale desberdinetan aparkatzeko denbora-muga duten eremuetarako ezarriko diren ordutegiak honakoak izango dira:

Astelehenetik ostiralera.

— 9:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara.

Larunbatetan.

— 9:00etatik 13:00etara.

Ordutegi hori Alkatetzaren dekretuaren bidez aldatu ahal izango da.

*13. artikulua.*

Eremu horietan, gehienez, 30 minutu aparkatu ahal izango da eta ez da ezer ordainduko.

Denbora hori gainditu ahal izango den eremuetan, orduko tasa bat ordaindu beharko da eta tasa hori Ordenantza Fiskaletan jasotakoa izango da.

Bertan aparkatu ahal izateko, 2 ordu igaroko dira.

*14. artikulua.*

Hauek izango dira arau-hausteak:

a) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, ordubete baino gutxiagoan, gainditzea.

b) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, ordubete baino gehiagoan, gainditzea.

c) Balio ez duen tiketa erabiltzea –matrikula okerra–.

d) Tiketa ez jartzea.

*15. artikulua.*

Salaketa, jaso den egunean bertan baliogabetu ahal izango da, lurpeko aparkalekuko makinan bertan. Arau-haustearen arabera, hauek dira baliogabetzearen zenbatekoak:

a) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, ordubete baino gutxiagoan, gainditzea. (6,00 €).

b) Tiketean ageri den aparkatzeko denbora, ordubete baino gehiagoan, gainditzea. (10,00 €).

c) Balio ez duen tiketa erabiltzea –matrikula okerra–. (10,00 €).

d) Tiketa ez jartzea. (10,00 €).

*Xedapen indargabetzailea.*

Indargabetuta gelditzen da joan den 2013ko otsailaren 15eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen Ordenantza. Era berean, indargabetuta gelditzen dira arau honen aurka doazen beste udal xedapen guztiak.

d) No disponer de ticket. (10,00 €).

TÍTULO II

REGULACIÓN DE LAS PLAZAS HABILITADAS EN OTRAS CALLES DEL MUNICIPIO

*Artículo 11.*

En este apartado, se regula la prestación del Servicio Público de Ordenación del estacionamiento de vehículos por un tiempo limitado, en las calles del municipio.

*Artículo 12.*

El horario que se establece para el funcionamiento del estacionamiento limitado en las diferentes calles y atendiendo a sus características es el siguiente:

De lunes a viernes.

— De las 09:00 horas a las 13:00 horas / De las 17:00 horas a las 20:00 horas.

Sábados:

— De las 09:00 horas a las 13:00 horas.

Este horario podrá ser modificado mediante Decreto de Alcaldía.

*Artículo 13.*

La limitación del tiempo de estacionamiento se establece en 30 minutos, no devengando tasa alguna.

En las zonas donde se permita rebasar dicho tiempo, devengará por hora la correspondiente tasa que se recogerá en la Ordenanza fiscal.

Para volver a estacionar deberá haber transcurrido el plazo de 2 horas.

*Artículo 14.*

Se consideran infracciones:

a) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en menos de 1 hora.

b) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en más de 1 hora.

c) Utilizar un ticket no válido –matrícula no correcta–.

d) No disponer de ticket.

*Artículo 15.*

La anulación de la denuncia, se podrá llevar a cabo en la propia máquina, en el mismo día de la emisión de la denuncia. Las cuantías de la anulación en función de la infracción son:

a) Por rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en menos de 1 hora. (6,00 €).

b) Rebasar el tiempo de estacionamiento señalizado en el ticket horario del aparcamiento, en más de 1 hora. (10,00 €).

c) Utilizar un ticket no válido –matricula no correcta–. (10,00 €).

d) No disponer de ticket. (10,00 €).

*Disposición derogatoria.*

Queda derogada la Ordenanza publicada en el Boletin Oficial de Gipuzkoa de 15/02/2013 y cuantas otras disposiciones municipales se opongan a lo dispuesto en la presente norma.

EK\CV GAO-I-2015-04655